

## **EPE 2011: IZENA EMATEKO INFORMAZIOA: 2011KO UZTAILEKO DEIALDIAK**

2011ko uztailearen 27ko EHAAn Osakidetza Zuzendari Nagusiaren 1282/2011 Ebazpena argitaratu da, uztailearen 15ekoa, hautatze-prozesua arautuko dituen oinarri orokorrak jasotzen dituena.

2011ko uztailearen 28ko EHAAn, Osakidetza Zuzendari Nagusiaren 1283/2011, 1284/2011 eta 1285/2011 ebazpenak argitaratu dira, honako kategoria hauetako deialdia keta oinarri espezifikoak jasotzen dituztenak:

**FEM Pediatriako LMAE**  
**FEM Obstetria eta Ginekologia**  
**FEM Erradiodiagnostikoa**

Azterketaren data, gutxi gorabehera: urriaren bukaera-azaroaren hasiera

Hiru kategoria hauetako hautatze-prozesuaren **izena emateko epea: 2011ko uztailearen 29ko 8:30etik irailaren 12ko 14:00etara.**

Izena emateko **eskabidea** <http://www.osakidetza.euskadi.net> web-orrian egingo da eta bertara honela heldu daiteke: Profesionalak/Giza baliabideak/ Hautatze eta Hornidura/ EPE 2011/Eskabidea.

Hautatze-prozesuan izena emateko ondokoa egin behar da: eskabide elektronikoa bete eta izena ematearen eskubidearen ordainketa egin. Bata zein bestea izena emateko epearen barruan egin behar dira. Izena emateko epean ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar.

Hautatze-prozesuan izen-emate elektronikoa egiteko erabili behar duzun **pasahitza** ondokoa da:

- 2011ko Kontratazio-zerrendetan izena eman bazenuen: prozesu hartan erabilitako pasahitza.
- 2011ko Kontratazio-zerrendetan izena eman ez bazenuen, baina, 2008ko EPEn izena eman bazenuen: 2008ko EPEn erabilitakoa.
- 2008ko izena eman ez bazenuen, baina 2008ko Kontratazio-zerrendetan onartuta bazeuden: 2008ko Kontratazio-zerrendetan izena emateko erabilitakoa.
- Aipatutako pasahitzen bidez ezin baduzu zerrendetan izena eman, baina, Osakidetza lan egin baduzu eta Osakidetza curriculum vitae baduzu: zure curriculumean erabilitako pasahitza.
- Aipatutako ataletan ez bazaude, pasahitza izango da, eskabidea egiteko aplikaziora lehenengo aldiz sartzeko erabiltzen duzuna. Pasahitza gogoratu beharko duzu hautatze-prozesuari buruz egin beharko dituzun hurrengo kontsultetarako.
- Pasahitza gogoratzen ez baduzu, eska dezakezu eskabide-inprimakiaren bidez, aplikazioak sarbide kontrolean pasahitza eskatzen dizunean. Horrela izanez gero, aipatutako pasahitza erabili zenuen prozesurako emandako posta elektronikora bidaliko dizugu automatikoki pasahitza. Horrela ere,

ezingo bazenu pasahitza lortu, edo bidalitakoak eskabidea egiten utziko ez balizu, deitu ondoko telefonora: 945006150, bertan esango dizute zer egin behar duzun pasahitza eskatzeko eta jasotzeko.

**Zuzeneko arreta** 2011ko uztailean argitaratzen diren deialdietarako:

Araba: Osakidetzako Erakunde Zentrala – Hautatze eta Hornidura Zerbitzua (Araba, 45 Vitoria Gasteiz)

Bizkaia: Bilboko Eskualdea (Gran Vía, 62 – 2. Bilbao)

Gipuzkoa: Donostia Ospitalea – **PAU (Profesionalaren Arretarako Unitatea)** (Begiristain Pasealekua, z/g, Donostia-San Sebastián)

Bulego-orduak: Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 28an